

Modaren bizitza erabilgarria



Arte bizen proiektua, egunerokotasunean erabiltzen ditugun modako objektuen bizitza baliagarrian dauden tentsioak eta indarkeriak aztertzen dituena.

Helburuak

- Laida Azkonaren obrara eta prozesuetara hurbiltzea.
- Gure eguneroko bizitzan dauden modako objektuen eta kolonialismo garaikidearen forma berrien arteko harremana aztertzea.
- Modaren kultura materialean dauden kontakizun hegemonikoak zalantzan jartzea.

Aipamenak

Azkona y Tolosa, trilogia Pacífico:

<https://beteve.cat/artic/akcona-toloza-trilogia-pacifico/>

Tierras del Sud proiektuari buruz: <https://www.centrohuarte.es/habitacion-8-esto-nunca-fue-argentina-3/>, https://issuu.com/centrohuarte/docs/fanzine_8

Peter Weiss, antzerki dokumentala: <https://www.youtube.com/watch?v=X24h7oUgRwc>

Canva, infografiak diseinatzeko plataforma: <https://www.canva.com/>

Benetton-en irudi publizitarioaren analisia:

<https://www.redalyc.org/pdf/5611/561158763004.pdf>

Fast fashion, modaren alde ezkutua:

<https://www.youtube.com/watch?v=xmV34zEmWAI>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Laida Azkonaren "Trilogia Pacífico" bideoa ikusiko dugu (aipamenetan). Jarraian, galdera hauek botako ditugu: Zer ulertzen dugu arte biziei buruz hitz egiten dugunean? Eta kolonialismoaz? Kolonialismotik eratorritako zer objektu aurkitzen ditugu egunerokotasunean? Nola erabil dezakegu gure gorputza bidegabekeriak agerian jartzeko?

2. Gure janzki bat hautatuko dugu, eta nondik datorren jakiten saiatuko gara. Arbelean zerrenda bat egingo dugu eta jatorriaren arabera sailkatuko dugu. Herrialde horietan ehungintzaren industriaren errealitatea nolako den ikertuko dugu.

3. 4ko taldeetan, Google Earth-en mapa bat inprimatuko dugu, jatorrizko herrialdea kartografiatu, eta objektuek guregana iristeko egin dituzten usteko ibilbideak markatuko ditugu errotuladoreekin. Nola egin dira objektuok? Egin dituzten pertsonak, zer nolako bizimodua dute? Fikziozko kontakizun bat idatziko dugu orain gureak diren pieza horien ibilbideari buruz.

4. Benetton moda-enpresak Argentinako Patagoniarekin duen harremanean murgiltzeko, Uharte Zentroaren "Habitación: FANZINE 8" argitalpenaren edukiak ikusi eta aztertuko ditugu. Laidak eta Txalok egin zuten, "Tierras del Sud" proiekturako (aipamenetan) ikerketaren baitan. Arreta berezia jarriko dugu azalean eta 3. atalean: irudiak aztertuko ditugu, testigantzen bat ahoz gora irakurri, etab.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. 4ko taldeetan, arte biziak, dantza garaikidea edo performancea lantzen dituzten beste artista batzuk ikertzen hasiko gara, eta inspiratzen gaituen bat aukeratuko dugu. Halaber, "fast fashion" gaiari eta horrek lurraldean duen eraginari buruzko albiste bat bilatuko dugu. Informazio hori guztia biltzen duen Pecha Kucha aurkezpen bat egingo dugu,

eta gainerakoei aurkeztuko diegu. Zer beste istorio daude moda-enpresen diskurtso ofizialen atzean?

2. Bildutako informaziotik abiatuta, ekoizpen-moduak eta arroparen atzean dagoen kontakizuna aztertu eta zalantzan jarriko ditugu. A3 infografia diseinatuko dugu collage teknikarekin, eta nazioarteko moda-dendaren baten (Inditex, Benetton, etab.) publizitate-irudi bat hartuko dugu abiapuntu gisa.

3. Gure ikerketa arte bizen espaziora eramateko prozesuari ekingo diogu. Laidaren lana eta aukeratu genuen XX. mendeko artista izango dira gure erreferentziak. 5 -15 minutuko performance bat egingo dugu, gure jantziaren baten bizitza erabilgarria modu kritikoan eta fikziozkoan adierazteko, janzkia egin zenetik zakarretara bota arte. Gure mezua helarazten lagunduko diguten elementuak baliatuko ditugu: proiektzioak, audioa, atrezzoak, estilismoa...

4. Performancea ikasgeletan edo ikastetxeko toki jakin batean egin daiteke. Bideo eta argazki bidez erregistratuko dugu.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Gure infografiak instalatu eta performanceak proiektatuko ditugu ikastetxeko espazio egoki batean.

2. Bisita gidatu bat antolatuko dugu beste ikasgela batzuentzat, eta lortutako emaitzak aztertzeo eztabaida-mahai bat irekiko dugu.

- Lortu al dugu gure ideia komunikatzea?
- Erabilitako elementuek mezua indartzen ala indargabetzen dute?
- Diziplina artistiko bat baino gehiago erabili al dugu?